



DEBAKO UDALA

ERAKUNDE-ADIERAZPENA UDALAN ETA UDALERRIAN EUSKARALDIAREN HIRUGARREN EDIZIOA SUSTATZEKO

Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek parte hartu zuten 2018ko eta 2020ko Euskaraldiaren lehenengo bi edizioetan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.

Deban ere 1.000 herritar inguru izan dira edizio horietan “Ahobizi” edo “Belarriprest” gisa parte hartu dutenak, eta 70 entitate baino gehiagotan eratu dira “Ariguneak”.

Lehenengo eta bigarren edizioen balorazioa positiboa izan zen, bai parte-hartzearen aldetik, eta baita ekimenak erabileran izan duen eraginaren aldetik ere. Une honetan, abian dira Euskaraldiaren hirugarren edizioa antolatzeko lanak.

Euskararen alde egotetik euskaraz gehiago egitera pasatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Hain zuzen ere, “Hitzez ekiteko garaia” du leloa hirugarren edizioak. Aurreko bi edizioetan moduan, herritarron hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskararen erabilera gehitzea izango da helburu nagusia.

Bigarren edizioan bezala, oraingoan ere, entitateek era aktiboan parte hartuko dute ariketan. Hori dela eta, entitateetan euskaraz lasai jarduteko “Ariguneak” sortzea izango da entitateon zeregin nagusia.

Deban, dagoeneko, abian da Euskaraldia taldea; baita ekimena herriko entitateetan aurkeztuko dutenen sarea ere.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

- Debako Udalbatzak bat egiten du, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, Euskal Herri osoan zehar bideratuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile izango da Debako Euskaraldia taldearekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Debako Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena emango du, horretarako beharrezko ariguneak identifikatuz eta bultzatuz, eta Udalbatza bera ere “arigune” gisa identifikatuz.
- Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die prestaketa-lanetan parte har dezaten eta, bere garaian, “Ahobizi” edo “Belarriprest” izan daitezen eta “Ariguneetan” parte har dezaten.
- Ordezkeri politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren esparruaren baitan, eta bereziki Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan, ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta “Arigune” gehien, eta “Ahobizi” eta

“Belarriprest” gehien aktibatzeke urratsak emango dituzte, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

- Debako Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izateko eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.